



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2019ko OTSAILAREN 21ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2019ko otsailaren 21ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Felix Joaquin Asensio Robles
 Angel Serrano Martinez
 Aritz Sarria Saraqueta
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2019ko urtarrilaren 31an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 31 de enero de 2019.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. XV. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2018 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a XV. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.**
- 4. XVI. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2019 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./Ayuda económica correspondiente a XVI. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.**
- 5. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketa antolatzeko, 2018 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada/ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica de 2018 para la organización de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul.**
- 6. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketa antolatzeko 2019 urterako diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada/ Solicitud de ayuda económica para la organización de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul del ejercicio 2019.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Tolosaldea Garatzen-i 2019 urteari dagokion ekarpena onestea, hala bada/
Aportación económica a Tolosaldea Garatzen correspondiente al ejercicio 2019.
8. Madariaga erdiko pabiloian hainbat lan egiteko obra baimena eskaera,
G.J./ Solicitud de licencia de obras de G.J. para realizar varios trabajos el
pabellón central de Madariaga.
9. Erroitz baltzu mugatuari 2018 urteari dagokion ekarpenaren kitapena
onestea, hala bada/ Aprobación de la liquidación presentada por Erroitz
baltzu mugatua de la ayuda económica concedida en el ejercicio 2018.
10. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
11. Beste batzuk/Otros.
12. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
12.1. Galtzaundi euskara taldeak aurkezturiko Tolosaldeko euskararen
mahaia, konpromiso adierazpenaren onespina, hala bada/Aprobación del
compromiso de declaración presentada por Galtzaundi euskara taldeak
sobra Tolosaldeko euskararen mahaia.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2019 urteko urtarrilaren 31an Udaltzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


04/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 8koa, non Atxikitzen den Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru kontratazioen zentralari, posta zerbitzua kontratatze espedientea, ebazten duena.

05/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 8koa, non hutsik dagoen Idazkari-kontuhartzeile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

06/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 8koa, non Berri Lantegia S.L. enpresari desbrozadorarentzat kutxilak erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

07/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 12koa, non Distribuciones Lopetegi S.L. enpresari udal eraikuntzen garbiketarako materiala erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

08/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 12koa, non Electricidad Zizurkil S.L. enpresari, Wacker mailuaren konponketarako kontratua esleitzea, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

09/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, non Calparsoro Industrial S.L. enpresari arandelak erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

10/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, non Berri Lantegia S.L. enpresari desbrozadoraren motxila konponketa egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

11/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, non Aketegi enpresari desbrozadoraren motxila konponketa egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

12/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 15koa, non J.T. jaunari Larraulgo Larrola abeltzaintzako ustiategiaren inguruko hormigoizko zola konpontzeko obra baimena ematea, ebazten duena.

13/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 16koa, non Key-lan enpresari Larraulgo udalaren almagazteko ateko sarraila konpontzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

14/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 19koa, non Ferreteria Barbe S.L. enpresari errefuxako kontenedorearentzat kandadoa eta giltza kopiak eta herri lanetarako materialaren erosketak kontratua esleitzea, ebazten duena.

15/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 19koa, non Carrefour Norte S.L. enpresari Alkate andrearen telefono mugikor berria erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

XV. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-RI 2018 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA


Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XV. Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 615,13 euro izan zen eta kostatu zena, Larraulgo kasuan 816,65 euro izan ziren. Beraz, 201,52 euroko defizita izan du.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XV. Klasikoak, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

BIGARRENA: 201,52 euroko gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 422.340.00.02 kontu sailaren kargura.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

XVI AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-RI 2019 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XVI. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” Udalek ordaindu beharreko aurrekontua bidali duela, guztira 19.500,00 eurotako dena, martxoaren 17an ospatu dena. Larraulgo Udalari 831,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2019ko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 kontu sailean aurrekontu nahikoa aurrirakosten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 831,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA: 831,98 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 422.340.00.02 kontu sailaren kargura.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO, 2018 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik, 2018ko otsailaren 15ean eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2018 urteko aurrekontuetan aurreikusita zegoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.

Kontutan hartuta diru-laguntza eman ondoren baldintza bat jarri zela, hau da, 2018ko kontuen kitapena, memoria bat eta gastuen frogagiriak aurkeztu beharko zituela.

Ikusirik, A.A.J. jaunak, Club deportivo Utsetaren izenean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2018ko diru-laguntza zuritzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu dituela Larraulgo Udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGOA: 2018 urteko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeke emandako diru-laguntza zuritzeko aurkezturiko kitapena onestea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO 2019 URTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.A.J. jaunak, "Club deportivo Utsetaren" izenean, 2019 ko martxoaren 17an egingo den Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako hainbat eskaera egiten dituela, ondorengoak direlarik:

- Diru-laguntza eskaera
- Larraulgo Udalaren laguntza, Asteasuko Udaletik materialen eskaera egiteko.
- DYA zerbitzua egun horretan lasterketan egoteko beharrezkoak diren izapideak egiten laguntzeko eskaera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2019 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez 422.340.00.01 kontu sailean, 600 euroko diru-laguntza ematea. 2019 urtean emandako diru-laguntzaren zuritzea onesteko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituelarik Larraulgo Udaletxean:

- Gastu eta sarreraren erlazioa.
- Gastuen frogagiriak, hau da, fakturak
- Memoria bat


BIGARRENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko den materialaren eskaera egitea, onesten da.

HIRUGARRENGOA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-I 2019 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2018ko abenduak 17ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2019 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.707,72 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2019 urteko ekarpena onestea, guztia, 4.707,72 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 2.353,86,00 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 4.707,72 eurotako gastua onestea, ordainketak 2019ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo direlarik.

ZORTZIGARREN PUNTUA

MADARIAGA ERDIKO PABILOIAN HAINBAT LAN EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, G.J.

Ikusirik G.J. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Madariaga granjako erdiko pabiloian egokitze lan batzuk egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2019ko otsailaren 19an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO MADARIAGA GRANJAKO ERDIKO PABILOIAN EGOKITZE LAN BATZUK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA


G.J.S. jaunak, Larraulgo Madariaga Granjako erdiko pabiloian egokitze lan batzuk egiteko baimena eskatzen du, batzbesteko aurrekontu, gaur eguneko egoera adierazten duten argazkiak eta plano bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako eskarian, Madariaga Granjaren erdiko pabiloian irekia dagoen tarte itxi (bertan oinezkoen ate bat eginez), fatxadako 3 leiho zertxobait handitu eta pintatu, barruan dagoen pareta kendu eta kanaloia aldatu nahi dela esaten da. Lan hauen batzbesteko aurrekontua 2.000€ izango da.

Larraulgo arauen 14º artikulua eraikinen kanpo itxuren aldaketek udal lizentzia behar dutela esaten du. 2006-ko Lurzoruaren Legearen 199 artikulua higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharrak arautzen ditu.

Artículo 199. El deber de conservación y rehabilitación

1. Los propietarios de terrenos, construcciones, instalaciones y edificios tienen el deber de mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad, ornato público y decoro,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

realizando los trabajos y las obras precisas para conservarlos o rehabilitarlos, a fin de mantener las condiciones requeridas para la habitabilidad o el uso efectivo.

Madariaga granja edo pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargariaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, bereziki 1 poligonoko 377 lursailean.

Hau honela izanik, hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48ºartikulua.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

- Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

...

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozen eta aurreko baldintzak betetzen badira, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Gotzon Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: G.J. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Madariaga granjako erdiko pabiloian egokitze lan batzuk egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ERROITZ BALTZU MUGATUARI 2018 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuari 2018. urtean 750,00 eurotako diru-laguntza eman zitzaiola, Aiurri, Beterri-hamaboskaria argitaratzen laguntzeko.

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuak, Aiurri, beterrri-hamaboskariko 2018 urtean izan dituzten gastuen zuritzea aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Erroitz baltzu mugatuak aurkezturiko, Aiurri, beterrri hamaboskariko gastuen kitapenaren onspena.

HAMARGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

CARREFOUR GOIERRI	159,05
BERRI LANTEGIA	71,91
IZFE	20,45
KEY-LAN	139,15
ZIZURKIL	161,23
BERRI LANTEGIA	40,00
DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	75,60
CORREOS	0,84
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	150,40
ZU ETA BIOK	795,23
SANIPLAST	53,59
EBA ERKIZIA	828,23
FERRETERIA BARBE	77,38
KIROLZER	49,65
IBERDROLA	147,30
IBERDROLA	154,76
IBERDROLA	81,48
IBERDROLA	273,41
IBERDROLA	32,95

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.312,61** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAİKAGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMABIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

**12.1.GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK AURKEZTURIKO
TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAI, KONPROMISO
ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Bertaratuek, aho batez erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea hobeto aztertu arte.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA